

## Habi-kaxak erabiltzen dituzten hegaztiak, zeintzuk dira?

Orokorrean, hegazti intsektujaleek erabiltzen dituzte, horietatik ohikoenak paridae familiakoak dira: kaskabeltza (*Parus major*) eta amilotx urdina (*Parus caeruleus*) dira erabiltzaile ohikoenak, nahiz eta beste batzuk ere erabili, noizean behin, horien artean: gerri txori arrunta (*Certhia brachydactyla*), landa txolarrea (*Passer montanus*) eta txepetxa (*Troglodytes troglodytes*)

Baliteke, ustekabe atsegina izatea, eta kutxaren barruan, hegazti bat ikusi ordez, ugaztun bat topatzea: muxar grisa (*Glis glis*)

Kaxa handiagoak erabili daitezke gau harraparien tzat, adibidez, urrubi (*Strix aluco*) eta mozoloarentzat (*Athene noctua*).

Hegazti horien guztien ezaugarri komuna da habiak egin ahal izateko zuloak behar dituztela. Ezinbestekoak izango dira habi-kaxak zulo natural nahikorik ez badago: zuhaitz zaharrak, baserri zaharren ormak eta abar.

## Non jarri behar dira kaxa horiek?

Kaxak jar daitezke: baso gazteetan, basotxoetan, parkeetan, lorategietan, erreka ertzetan eta antzeko lekuetan.

Ez jarri bata bestearen ondoan. Normalean kopuru egokia da 10 kaxa hektareako.

## Nola jarri eta zeri erreparatu behar diogu?

- 2 eta 5 metro arteko altueran (inor bertara ez iristeko moduan). Kontuan izan gero guk erabili behar harko ditugula jarraipena egiteko, beraz leku zailak ekidin.
- Kaxa jarri behar da nahiko argia heltzeko sarrerara. Hego ekialderantz, orientazio egokia izan daiteke.

- Kaxa pixka bat aurrerantz inklinaturik jarri, ahalik eta euri gutxien sar dadin zuloatik.
- Zuhaitzaren enborraren kontra ez jarri. Adar batean zintzilikatu, horretarako ematen den alanbrea erabiliz.
- Finko ez jarri. Kaxak mugitu egin behar du, zerbaitek bultza edo gainean jartzen bazaio. Horrela, harraparien erasoak ekiditen dira.
- Ez ireki kaxarik erruten ari diren bitartean, ez eta kume txikiak dituen bitartean. Bestela, helduek habia uzteko arriskua dago.
- Apirilaren hasieran materiala kaxetan sartzen hasten dira, eta, kantari, lurraldea aldarrikatzen dute.
- Normalean, maiatzaren bukaeratik ekainaren hasierara irteten dira kumeak kaxatik. Dena den, hori ere ez da beti horrela izaten, eta aldaketak egoten dira.

## Garbiketa eta konponketa lanak

Kaxak garbitu behar dira urtero. Udazkena da garai egokia hori egiteko. Bertan, aurreko urtean erabiltako habia egongo da. Agian arrautzaren bat edota hildako txorikumeren bat. Dena ustu eta garbitu.

Kontuan izan, batzuetan, negu partean ere, txoriek erabiltzen dutela kaxa horiek lo-leku bezala.

Bestalde, urtetik urtera kaxak hondatzen joaten dira, eta zintzilikatzeko erabiltzen ditugun alanbreak herdoiltzen dira. Hori guztia konpondu beharra dago, hurrengo kumaldiari begira.

## Memoria txiki bat egin

Gauzak esanda bezala egiten baditugu, gozatzeaz aparte, emaitza onak izango ditugu. Urtero, jarraipena egin ondoren, emaitzak gorde txosten txiki baten, eta, urte batzuen buruan, datu interesgarriak izatea lortuko duzu!



# HABI KAXEN ERABILPENA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua  
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural